

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Emakumeen eta presoen
gaineko mozioak /08

KULTURA

Literatuta Astea
HUHEZIn /09

LEINTZ GATZAGA

Sorginak taldeak
bazkaria /10



KANUTO DEUNA

LAUGARREN ALDIZ OSPATUKO DUTE ZAPATUAN

EDATEKO URA: KOLIFORMEEN PRESENTZIA/4 • KIROLAK: KURTZEBARRIREN 75. URTEURRENA/6

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 13
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 14
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkartea	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domekan 11:30ean.

ARKARAZO
Domekan 12:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

KANUTO DEUNAREN EGUNA
Kanuto Deunaren eguna ospatuko dute zapatuan. 11:30ean, kalejira egingo dute eta 12:00etan, bolo txapelketa; 15:00etan, babarrun-jana; 19:00etan, Pan de Capazo gaitariekin kalejira eta 20:00etan, Koplakari taldearen erakustaldia; 22:30ean, Karlote y los 3 del Patibulo taldeak kontzertua emango du.

GIPUZKOAKO TRIALSIN TXAPELKETAKO PROBA
Gipuzkoako Trialsin Txapelketako proba egingo dute kanposantu inguruan domekan, martxoak 14, 10:30ean hasita. Gaztetxoren batek parte hartu gura badu, proba hasi aurretik eman behar du izena, eta bizikleta utziko diote.

ESKOLA ARTEKO MENDI IBILALDI NEURTUA
XVII. eskola arteko mendi lehiaketa egingo dute domekan. Gipuzkoako eskoletako gaztetxoek hartuko dute parte, eta ibilaldi neurtua izango da.

BASOTXOKO ERRETIRATUAK BENIDORMERA
Basotxo erretiratuen elkar-teak bidaia antolatu du Benidormera. Apirilaren 24tik maiatzaren 8ra izango da bidaia, eta izena Basotxon bertan eman behar da, 11:00etatik 12:00etara.

LORAMENDIREN AGENDA


AMARAUN TALDEA
Konzertua emango du Amaraun taldeak martxoaren 26an, egubakoitza, 22:30ean, Orly tabernan. Euskal jazza egiten du.

EZOHIKO BATZAR NAGUSIA
Loramendi EEK ezohiko batzar nagusia egingo du eguaztenean, hilak 17, 20:00etan, udaletxe zaharrean. Bazkide guztiei egiten die dei parte har dezaten.

ORAINDELA 11URTE ARETXABALETAN

Larrinbeko industrialdea berrituta zabaldu zuten


Garai baten Abrasivas Laura eta Corindon enpresak egon ziren lekua berritu, eta Larrinbeko lantegiari itxura aldatu zioten. Ingurua txukundu, eta beste itxura bat hartu zuen industrialdeak. Bertan, 1992ko martxoan sei lantegi berri zabaldu zituzten, eta 60 bat lagun hasi ziren lanean.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Galdara”

Burdingintza, kobrezko galdaria.
—Galdara haundi baten egosten zan artua eta esnia.



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Fran Gonzalez
7an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Davila-Negro familiaren partetik.



ARETXABALETA
Jenni Davila
9an, 17 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta Mireiaren partetik.



ESKORITAZA
Melissa Ferreira
10ean, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ganitz Zubimendi
12an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, amaren partetik.



ARETXABALETA
Saioa Carretero
12an, 27 urte. Zorionak eta urte askotarako, koadrilakoen partetik.



ESKORITAZA
Xabier Axpe
13an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORITAZA
Maitane Axpe
19an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA



JOANES ETA BIOLETAREN BIHOTZA

Miren Agur Meabe
Elkar, 2002
22 orrialde

Joanesek jostailu asko dauzka, baina gehien maite duena Bioleta da, trapuzko panpina. Bioletak kantatu egiten du, eta Joanesek txirula jo eta gurasoek dantzan egiten dute. Egun batez Bioleta begirik eta txirikordarik gabe agertu da, eta gainera, ez du kantatzen. Aitaitak nahi gabe bainuontzian sartu du. Orduan denak pentsatzen hasiko dira zer egin konpontzeko, Bioleta berriz kantuan ipini arte. Istorio xamurra duzue lehen irakurleei zuzendua; Manuel Ortegaren ilustrazioak ere ederki lotzen dira kontakizunaren giroarekin.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**MIREN • ESME • ARANTZAZU
RAKEL • SILVIA**

Maiatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka 3, behea
Musakola - ARRASATE
Tel.: 943 79 58 78

ATREBENTZIAEZPADA/ Elekziñuen aurretik emuten dittuen emaitzetan siñisketan dozu?



RICARDO BESA
Jubilae

Ez. Izen be, bakotzak bere aldeko emaitzak emuten dittuela uste dot. Noizbait telefonoz ahaleginddu die neuri be egitten, baiñe ezekue emun nutzien, politika kontuek ez jat gustetan-eta.



AITZIBER ZUFIRIA
Langillie

Ez, bakotzak bere aldera egitten dauela pentsetan dot; hortan, esango neuke ez die-la fidagarrixek. Egunera arte ezin izengo da jakin. Ez neuri, ez nere ingurukuei ez dutzie sekule be egin.



UNAI ALTUNA
Langillie

Ez, ez dot siñisketan, eritzi-azterketie egitten dauenak bere aldera egitten dauelako. Neuri ez dustie sekule be egin; beste era bateko enkuetak bai, baiñe elekziñuen gainekorik ez.



CLEMENCIA LOPEZ
Jubilae

Ez. Gaiñera, nik batei botue emungo dutzetela esan, eta beste batei emun neuskio; hortan, ez dot siñisketan. Ez dustie sekule be egin, baiñe neure koiñetuei lehengo egunien egin eutzien.



JON MIKEL LARRAÑAGA
Langillie

Ez, probaute dau ez dauela azertetan, eta askotan interesauek izeten diela uste dot. Jarraitu egitten dittut, baiñe siñistu ez. Behin, botue emun eta gero galdetu eustien.



MARI LUZ FERNANDEZ
Langillie

Ez, ez dot uste sekule azertetan dauenik; emaitza bat baiño gehixau emuten dittue, eta ez daue azertetan. Neuri ez dustie sekule be enkuetarik egin, ez telefonoz, ezta kalien be.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK MOZTUTAKO LOREAK LURREAN Udaberrirako hamar egun falta dira, eta loreak berritzeko unea etorriko da. Zahar-tutako adarrak moztuko dizkiote askok, eta zimeldutako hostoak kendu. Adar eta hosto horiek nora bota? Lurrera ez, behintzat. Edo lurrera botaz gero jaso egin behar, argazkian ageri direnak jaso zituzten moduan. Hala ere, hobe da moztu eta eskuan jasotzea./ M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Dirulaguntza eskaera

Herriko hainbat alderdi berritzeko dirulaguntzak eskatuko dizkio Udalak Eusko Jaurlaritzari.

ASTEAN BEHIN /05

Kanuto Deunaren eguna

Kanuto Deunaren eguna ospatuko dute zapatuan. Marihuanaren inguruan antolatutako jaia da.

KIROLAK /06

Gipuzkoako trialsin proba

Gipuzkoako Trialsin Txapelketa proba egingo dute domekan. Kanposantu inguruan izango da.

ASTEKODATUA

125

SINADURA BATU ZITUEN ELKARRIK ZAPATUAN

Elkarriren Aretxabaletako tailerreko kideek zapatuan jarri zuten mahaian 125 sinadura batu zituzten. Aratuste-domekan ere egin zuten sinadura batzea, eta orduan 90 batu zituzten.

BESTEKEESANA

“Haitiko populazioaren proportzio altua miseria gorrian bizi da; horrek amorrua sortzen du, eta leherketa bortitzak dakartza.

Egun hauetan ahalik eta gutxien ateratzen dira biztanleak kalera. Alde batetik segurtasun ezagatik, eta bestetik dena itxita egon delako. Orain poliki-poliki zabaltzen hasi dira komertzioak, zerbitzuak, eskolak eta abar. Nire ahizpa-eta atzo hasi ziren lanean, baina ikasle eta irakasle asko kanpora joanda daude Aratuste inguruan oporraldia izaten dutelako. Hortaz, momenturik bertitzenak egun horietan tokatu zaie, eta batzuk beldurrez alde egin badute ere, beste batzuk oporretan kanpora joanda zeuden. Hegazkin zirkulazioa, gainera, oraindik ez dabil eta horregatik asko itzuli ezinik daude.

MARGA GARMENDIA
Arrasate Irratia/04-03-09

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



Boikotik ez GOITBri

Igandeko *Berria* egunkarian Gasteiztar batek dei egiten zuen Kaiku produktuei boikota egiteko, ontzietan gaztelania soilik erabiltzen duelako. Ez dakit zein helburu zuen, esnerik ez edatea edo beste markaren bat kontsumitzeraz bultzatzea.

Proposamena ez zait egokia iruditzen. Kaiku enpresa euskara erabiltzera bultzatu egin behar da, erabileraren kontzientzia hartzera eta ez badakite ikastera. Ez ala? Norbanako bakoitzak erabakitzen duena baita garrantzitsua edozein hizkuntzarentzako.

Lotsa sentitu nuen ere GOITBk Aretxabaletako Inauteriei buruz egindako erreportajea egiten ikusterakoan. Ze pena! Ze maila! Ze euskara! Tamalgarria benetan. Hainbeste “itxurakeria” inportatu orde zentzuzko komunikabide eredu eta zintzotasuna esportatu behar ditu Goienak. Badaki egiten eta.

Aretxabaletarrok badakigu zein nolakoak diren gure

Karnabalak, zelan gozatzen dugun. Mozorrotzen direnek zein ez direnek izaten duten pazientzia, poza eta borondatea jaia egiteko egun horretan. Jaia guztiona da. Benetako jaia. Baina telebistaren izenean edozein gauza galdetu eta onartu daiteke ala? Adibideak

idatzi ondoren kendu egin ditut on baino kalte gehiago egingo dutelakoan, eta gainera gogoratzek bakarrik lotsatu egiten nau. Ez dezala inork pentsa ikusitakoak Aretxabaletako Karnabaletako giroa erakutsi zutenik.

Baina ez, boikotik ez GOITBri geuk sortua da eta. Pazientziar eman dugu askok zuntz optikoa egon ez den tartea GOITB ikusteko. Baina hori bai, kalitatea izan dadila emisioen lehentasuna eta Goienaren aurrerapausoak neurtzeko ezinbesteko irizpidea. Kalitatea zentzu zabalean. Kalitatea, erakutsi nahi denarekiko zintzotasuna erakusterakoan eta kalitatea esan beharrekoak esateko moduan.

“Kalitatea, erakutsi nahi denarekiko zintzotasuna erakusterakoan eta kalitatea esan beharrekoak esateko moduan”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Agendako kontuek

Ekittaldiz betetako aste bukaerie gertatu duskue oinguen. Eta ez, ez dot hauteskundeik aittetu, ni, neu behintzet ez dakit hurreratu be egingo nazen-eta. Izen be, guztiz gogaittute nau hainbeste publizidadekin, batez be, telebisiñuen. Horixe besteik ez daue emuten...

Zapatuko kontuekin hasiko naz, Kanuto Deunaren egune antolatu duskue-eta. Oin lau urte ezkeru egitten daue, eta aurten iñoiz baiño egitarau osatuaue gertatu daue. Neure üstien urtarrril inguruen da Kanuto Deunaren egune, San Sebastianak baiño lehen-txuau, baiñe aurten atzeratute edo dabitz eta mar-txuen egin biher daue. Iñoiz ez dala berandu...

Domekan, ostera, kirolak izengo die nausi. Batetik, mendi ibillaldi neurtue egingo dauielako eskoletako ikasliek, eta bestetik, trialsin txapelketako prueba bat antolatu dauielako. Bixek be polittek die gero, baiñe lelenguen ezin dotenez parte hartu, bigarrena ikusten fango naz. Trialsiñien munduko txapeldunek izendakuek be badatozela esan dustie, eta ikuskizun ikusgarrixe eskaiñiko duskue duda barik. Ñik, hala eta be, aretxabaletarrak animauko dittut. Eta zeatik ez ba, bizikletie hartu eta akaso neuk be parte hartuko dot...

M. J. Aretxaga

HIRIGINTZA/ Hurrengo lau urteotarako aurreikusi dituzten lanak Otalora, Lausitta eta Santa Kurtz kaleetan egingo dituzte

Herriko hainbat alderdi berritzeko dirulaguntzak eskatuko dizkio Udalak Eusko Jaurlaritzari

MIRARI ALTUBE

Astelehenean egindako osoko bilkuran, Eusko Jaurlaritzari dirulaguntzak eskatzea onartu zuen udalbatzak. Aipatutako dirua Otalora, Lausitta eta Santa Kurtz kaleetan hainbat berritze lan egiteko erabiliko du Udalak; kultura etxea eta kuartela berritzeko, esaterako.

Izartu programa jarri du abian oraintsu Eusko Jaurlaritzak. Herriak berritzeko dirulaguntzak ematen ditu programa horrek, eta Aretxabaletak eskatzea erabaki zuen astelehenean.

BOST PROIEKTU

Izartu programan sartzeko baldintza batzuk bete behar dira. Gure herrian Otalora eta Santa Kurtz kaleek betetzen dituzte, eta inguru horiek berritzeko eskatuko dituzte dirulaguntzok.

Lau urtera begirako proiektuak aurkeztu behar zaizkio Jaurlaritzari, eta hala, bost proiektu aurkeztea erabaki du Udalak: Otalora kalean, tranbia sartu aurretik, saneamendu lanak egin behar dira, eta 580.000 euroko aurrekontua izango dute lanok; Santutxun biribilune bat egin gura dute, eta LKSk egindako aurreproiektuaren arabera,



Izartu programak herriak berritzeko dirulaguntzak ematen ditu, eta Aretxabaletak bost proiektu egiteko eskatuko ditu.

1.445.000 euroko gastua izango du; Lausittara sartzeko zubia berritzea komeni da, eta Lora-menditik datorren pasealekua bukatu; hori guztiori 672.000 euro kostatzen da. Kultur etxea berri-ritu egin gura dute, eta musika

eskola eta gazte-lekua ere bertan jarriko dituzte. Horretarako 3.042.000 euro beharko dituzte. Eta bukatzeko, kuartela dagoen lekuan, erabilera askotariko aretoa egingo dute; horrek 3.466.000 euroko gastua izango du.

Guztira 9.300.000 euro inguruko gastua zehaztu du Udalak. Jaurlaritzak, hala ere, %30 baino gehiago ez lioke emango, ezta bi milioi euro baino gehiago ere. Orain, itxaron egin behar dirulaguntzei, proiektuak egiten hasteko.



Herrian ere ospatu zuten emakumearen aldeko eguna

Ibarreko eta munduko hainbat tokitan bezala, gurean ere ospatu zuten Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Urtero moduan, euren aldarrikapenen berri ematen duen izara jarri zuten Herriko Plaza barrenean. Atzo, eguna, ostera, Alizia Sturtze idazlea etorri zitzairen emakumearen gaineko berbaldia egitera, eta bukatutakoan, luntxa eskaini zien Loramendi EEK. /M.A.

BEIRALAN




KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Markoztatzea



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

JAIK/ Hainbat kalejira, herri bazkaria eta Karlote y los 3 del Patibulo taldearen kontzertua antolatu dituzte

Egitarau polita antolatu dute zaturako, Kanuto Deunaren eguna laugarren aldiz ospatzeko

M.A.

Aurten laugarren aldiz antolatu dute Kanuto Deunaren eguna herrian. Marihuanaren inguruan antolatutako jaiak da, eta urteik urtera egitarau dotoreagoa kaleratzen dute. Babarrun-janaz gain, Karlote y los 3 del Patibulo taldeak kontzertua emango du.

Marihuana aitzakia hartuta antolatu zuten Kanuto Deunaren eguna lehenengo aldiz 2000. urtean. Eta, geroztik, urtero egin dute ospakizuna.

GAUEAN KONTZERTUA

Marihuanaren aldeko lagunek euren zaindaria aukeratu zuten orain lau urte: Kanuto Deuna. Ordutik hona urtero antolatu dute jaiak, eta aurten, inoiz baino egitarau dotoreagoa kaleratu dute.

Goiz partean, Kanuto aldean hartuta kalejira egingo dute herrian, eta 12:00ak aldera bolo txapelketa jokatu dute bolatokian. 15:00etarako herri bazkaria antolatu dute, babarrun-jana, eta bazkalostean hainbat ikuskizun egongo direla aurreratu digute antolatzaileek. Ilunkaran, Pan de Capazo gaitariekin kalejira egin-



Orain lau urte antolatu zuten egunean Kanuto Deuna asto gainean hartuta egin zuten kalejira herrian.

go dute Mitarte kalean hasi eta Markolera. Han, Koplakari taldeak malabareekin eginiko ikuskizuna eskainiko die bertan batutakoei, eta salda beroa hartu ahal izango dute guztiek. Gauean, Kar-

lote y los 3 del Patibulo taldearen kontzertua egongo da Mitarte kalean jarriko duten tabernan. Garai baten Akulu taldean ibilitako bi taldekidek joko dute, gainera: Polik eta Ganglinok.

Antolatzaileen esanetan, ondo pasatzeko antolatu dute jaiak, eta ez da izango drogen apologia egiteko, norberak marihuana kontsumitu eta hazteko duen esku-bidea aldarrikatzeko baizik.



Andramariko etxeak berritzen

Andramari auzuneko etxebizitzak berritzen 2001. urte bukaeran hasi zen Gasteizko IDHECO enpresa. Horretan ibili zen 2003ko urria bitartean, baina egun batetik bestera alde egin zuten langileek, enpresako jabeak hala eskatuta, eta etxeak bukatu barik geratu ziren. Bizilagunek salaketa jarri diote IDHECOri, eta Covitra enpresa hartu dute lanok bukatzeko. Joan zen astean hasi ziren horretan, eta ea lehenbailehen bukatzen dituzten, etxeek nahiko itxura narrasa daukate-eta. /M.A.

LABUR

'Iparraldea bertan' programa antolatuko dute

Iparraldea bertan izena duen programa jarriko du abian Mankomunitateak. Horretarako, udalek kultur zerbitzuak eskaintzeko eskumena eman behar diote, eta hala egin zuten Aretxabaletako udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran. Programaren helburua Iparraldea gertuagotik ezagutzeko da, eta hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Debagoienera. Horretarako, baina, udal batzordeak diru kopuru bat jarri beharko du, eta Aretxabaletari 3.628 euro egokitu zaizkio.

Ezohiko batzar nagusia egingo du Loramendi EEK

Datorren martxoaren 17an, eguaztena, ezohiko batzar nagusia egingo du Loramendi Euskara Elkarteak. Orain arte antolatutako ekintzen eta egindako lanen berri emango diete bazkideei, eta hemendik aurrera egin gura dituztenak ere aipatuko dituzte. Bazkide guztiei egiten diete dei Loramendiko arduradunek batzarraren parte har dezaten. Udaletxe zaharrean izango da, 20:00etan.

Laster erretiratuko da Luis Cuesta Udaleko langilea

Hil honen bukaeran, martxoaren 29an, hain zuzen, Luis Cuesta Udaleko zerbitzuetako langilea erretiratu egingo da. 65 urte egingo ditu, eta merezitako erretiroa hartzeko garaia heldu zaio. Horren ordezkia beharko du gero Udalak, eta apiril inguruan peoi bat kontratatzeko oinarriak kaleratuko ditu.

Aretxabaletako Udalean langile bat baino gehiago dago erretiratzeko adinera ailegatzeko. Hurrengoak Jesus Erosarbe eta Jose Nuñez udaltzaina izango dira.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

Iber

- ★ Loteria ★
- ✳ Paper denda ✳
- ✳ Liburuak ✳

Otorla 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39



TRIALSINA

Gipuzkoako Trialsin Txapelketako proba jokatuko dute domeka goizean

Iker Lezeta eta Benito Ros trialsineko munduko txapeldunak ere bertan izango dira

M.A.

Gipuzkoako Trialsin Txapelketako azkenurreko proba egingo dute domekan Santutxu eta kanposantua bitartean. Bost maila egongo dira, eta kanpotik etorriko diren parte-hartzaileez gain, gura duten guztiek parte hartu ahal izango dute, izena emanda.

Bigarren aldiz antolatu dute Gipuzkoako Trialsin Txapelketako proba Aretxabaletan. Horrela, zaleak egin gura dituzte herrian.



ARTXIBOA

Iaz antolatu zuten lehenengo aldiz Gipuzkoako Txapelketako proba Aretxabaletan.

ARETXABALETARRAK OSO ONDO

Parte-hartzaile ugari etorriko dira trialsin probara. Bost maila egongo dira: hasiberriak, benjaminak, infantilak, alebinak, *superclass* eta neskak. Infantiletan bi aretxabaletarrek hartuko dute parte: Markel Uriartek eta Unai Mendikutek. Oso ondo dabilta, gainera, sailkapeneko lehenengo eta bigarren postuetan dau-

de-eta. Hasiberrietan Aitor Murua ibiliko da, eta nesken mailan Nagore Uriarte.

Parte-hartzaile ezagunak ere hurreratuko dira domekan herri-
ra. Izan ere, *superclass* proban Iker Lezeta eta Benito Ros mun-

duko txapeldun izandakoek hartuko dute parte.

Antolatzailuek, gainera, herriko gazte guztiak animatu gura dituzte parte har dezaten. Bizikletak utziko dizkiete, eta trialsina egiteko aukera izango dute.

MENDIA

XVII. eskola arteko mendi lehiaketa egingo dute domekan herrian

Deba arroko gaztetxo ugari batuko dira domekan, Gipuzkoa plazan, mendi ibilaldia egiteko

M.A.

Mendi ibilaldi neurtua egingo dute domekan herrian. Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatu du, eta Zaraia Mendizale Elkartearen laguntza izango du. Deba arroko gaztetxo ugari etorriko dira, eta 9 eta 13 kilometroko ibilbideak izango dituzte egiteko.

Gaztetxoz beteko zaigu domekan herria. Izan ere, 10 eta 14 urte bitarteko ikasle ugari etorriko dira Deba arroko herrietatik XVII. eskola arteko mendi lehiaketan parte hartzera. Orain bederatzi

urte 1.500 ikasle etorri ziren, eta aurtun ere beste horrenbeste etorriko dira. 9 eta 13 kilometroko ibilaldi neurtuak izango dituzte egiteko, eta bukatzerakoan diploma jasoko dute parte hartutako guztiek.

13 KILOMETROKO IBILBIDEA

09:00ak inguruan emango diote hasiera ibilaldi neurtuari. Gipuzkoa plazan jarriko dute irteera eta bukaera. Handik Apotzagara joko dute, Latagain pasatu eta San Adrianera; Danborralde, eta Asensiomendi inguratu, eta Untzillatik bueltan Gipuzkoa plazara itzuliko dira. Ibilbide horrek

13 kilometro inguru ditu eta nagusienek egingo dute. Gaztetxoek, ostera, Latagaintik Untzillarantz joko dute San Adrianera joan barik. Horrela, 9 kilometro inguru egingo dituzte. Untzillatik pasatzerakoan, gainera, hamarretakoa jasoko dute guztiek.

Zaraia Mendi Taldeak dauka domekako ibilaldi neurtuaren ardura. 40 bat lagun ibiliko dira lanean: seinaleak jarri bidean, kontrol puntuak zaindu, hamarretakoa gertatu eta beste hainbat lan izango dituzte. Proba bukatutakoan diplomak emango dizkiete guztiei, eta opariak ere izango dituzte.

PILOTA

Udaberri Txapelketako azken fasea jokatzeko hasi dira pilotari aretxabaletarrak


Udaberri Txapelketa aurrera doa, eta aste honetan azken fasea jokatzeko hasi dira. Lehen mailako seniorrek, Errasti anaiek, Ordizian jokatuko dute egubakoitzean. Hirugarren mailakoek, Uriarte eta Oionek, ostera, Tolosako Aurrera izango dute aurkari zapatuan, Iturrigorri frontoian. Azken fase horretan hiru partidu bakarrik izango dituzte, eta bi onenek finala jokatu dute.

XAKEA

Denboraldiko azken partidak erabakiko du aretxabaletarrak mailaz jaisten diren edo ez

Zapatuan, etxean jokatu du denboraldiko azken partida Arlutz Xake Taldeak. Iruñeko Orvina taldea izango du aurrez aurre, eta puntuak eskuratzen saiatuko dira aretxabaletarrak mailaz ez jaisteko. Orain zortzigarren postuan daude, 10,5 punturekin, eta azken hiru taldeak Ohorezko Mailatik Lehenengo Mailara jaitsiko dira. Ez da samurra izango, baina taldekideak itxaropentsu daude.

FOTOKIROLA




Hainbat lagun min hartuta eski irteeran

Murruxio MEk antolatuta eski irteera egin zuten hainbat aretxabaletarrek. 54 joan ziren, guztiak gazteak, 22 eta 31 urte bitartekoak. Zapatua Luz Ardiden pasatu zuten, eta eguraldi eskasa egin bazien ere, ibili ziren elurretan. Domekan, Bareges-La Mongie aldera egin zuten, eta eguraldi bikainari esker egun-pasa ederra izan zuten elurretan. Zoritxarrez bi lagunek min hartu zuten; batek soinburuan eta besteak belaunean. Hori dela eta, itzulera atzeratu egin behar izan zuten./ M.A.

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



Hirusta
Zatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

Dorleta
taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

ERRETRATUZHARRA

Akulu bederatzi urtez taula gainean

Bihar Kanuto Deuna eguna ospatuko dute herrian, eta gauean Karlote y los 3 del Patibulo taldeak joko du. Hala ere, lau partaideetatik bi argazkiko taldetik datoz, Akulutik.

Taldea 80ko hamarkada erdialdean sortu zen, eta bederatzi urtean ibili zen *Atxabaltako punka* bezala definitu zuten musika egiten. Hainbat etapa izan zituen taldeak, eta hainbat taldekide ere bai: Iribe, Ganglino, Poli, Bea eta Magu.

Akuluk bere ibilbidean kontzertu ugari eskaini zituen, gehienak Ganglino, Iribe eta Poli taldekide zirela. Gaztetxeetan jotzen zuten gehienbat. Tabernetan emanaldi gutxi eskaintzen zituzten, eta diskotekaren batean ere aritu ziren. Argazkia, esaterako, Altsasuko gaztetxean ateratakoa da. Espainiara salto egin, eta Extremadura eta Madrilen, esaterako, izan zen entzungai euren musika. "Ahal genuen tokian jotzen genuen", adierazi du Polik. Baina kontzertu gehienak Aretxabaletan eskaini zituzten: "Gaztetxean, pilotaleku irekian,



Portasolen... Ezin izango nituzke guztiak kontatu, asko izan ziren eta".

Primeran igarotzen zuten eszenatokian. Bederatzi urte igaro eta gero, baina, lan kontuengatik taldea bertan behera utzi behar izan zuten. Poli Madrilerira joan zen lanera. Hala ere, urtean behin batzen ziren, Gabonetan, eta

herriko gaztetxean egiten zuten emanaldia. "Entseguak egin gabe irteten ginen, eta jotzen genuen bakoitzean, ahalik eta ondoen egiten saiatzen ginen".

Iribe, Ganglino eta Polik elkarrekin jotzen zuten garaia izan zen kontzertu gehien eskainitakoa. Hala ere, bihar ez dira hirurak eszenatokian egongo.

Iribe ez da igoko, eta haren ordez, herriko bi mutil arituko dira, Karlote eta Argulo. Herriko punk doinu zaharrak entzuteko azken aukera izan daiteke bihar egingo duten emanaldian.

Argazkia eta informazioa: Akulu

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Lausitta plaza oinezkoendako egokituta

Sortzen diren beharren arabera herriko kale eta egonlekuak egokitzen joatea komeni da. Lausitta plaza saskibaloian jokatzeko edo umeek jolas egiteko jarri zuten, baina oso herritar gutxi egoten bertan. Hala, beste erabilera bat ematea bururatu zitzaion Udalari, bertatik pasatzen diren oinezkoekin pentsatuta. Egokitze lan txiki batzuk eginda dotoretu egin dute plaza.



≈ 2002 Orain urtebete, jolas eta kirola egiteko leku handia zeukan Lausitta plazak, baina oso herritar gutxik erabiltzen zuen.



2004 Oinezkoendako egokitu eta paseoa doazenendako egonlekua egitea hobe zela iruditu zitzaion Udalari, eta iaz egin zituzten egokitze lanok.

Ezkutu
TABERNA

ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Aretz

taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 12a / 159. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarr@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Emakumeak eta presoak berbagai Udalak egindako azken osoko bilkuran

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Emakumeen aldeko mozioa eta presoek eskubideen aldeko ez-arauzko proposamena. Horiek dira otsaileko osoko bilkuran Udalak onartutako gaietatik bi. Biak giza eskubideak jasotzen dituzten proposamenak dira, giza duintasuna oinarri dituzten bi mozio desberdin.

Eskoriatzako Udalak azken ohiko osoko bilkura otsailaren 26an egin zuen. Aurreko astean, *Udalalde 21 Debagoiena* proiektuari buruzko informazioa eskaini genuen. Jarraian, osoko bilkura hartan onartutako gai bi.

EMAKUMEAK ETA PRESOK

Eskoriatzako PSE-EE alderdiak Martxoak 8ri buruz mozioa aurkeztu zuen. Bertan, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna aldarrikatu zuten. Proposamena aho batez onartu zuten herriko udal ordezkari guztiek.

Aurkeztu zuten dokumentuan, oraindik gairik beharrezko hainbat gai daudela adierazi zuten. Horrela, emakumeak lan mundura sartzeko erraztasunak emateari eta genero biolentziaren



Emakume eta gizonen arteko berdintasuna eskatzeko mozioa eta presoek eskubideei dagokiona onartu zuten osoko bilkuran.

aurkako lege bat egiteko eskarari euren sostengua eman zieten Eskoriatzako udal ordezkariak.

Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusian onartutako presoek

eskubideen aldeko ez-arauzko proposamena ere onartu zuten osoko bilkuran; bost boto alde, bi kontra eta beste bi zuri. "Sakabanaketaren ondorioz presoek

senideek jasaten duten doaneko sufrimendua ekiditea" eta "gai-xotasun sendaezinak dituzten presoek askatasuna" eskatzen du testuak, Manu Azkarate aipatuz.

Funtsezkoa ikusten dute genero biolentziaren aurkako lege bateratua

Gaixo sendaezinek berehalako askatasuna eskuratzea eskatzen du mozioak

Giza duintasunean oinarritutako bi mozioak onartu egin zituzten azken osoko bilkuran



Fagor Etxetresna Txikien Negozioak hogeita bost urte

Fagor Etxetresna Txikien Negozioak 25 urte bete ditu. Hori ospatu zuten joan den egubakoitzean Eskoriatzan. Enpresako langile eta bisitariak lantegia ezagutzeko aukera izan zuten; 200 lagun inguru joan ziren bisitaldi gidaturara, antolatzaileen esanetan. Ondoren, lau hizlarik, Javier Gantxegi, Fernando Gomez-Acedo, Pablo Mongelos, eta Jesus Irurek, enpresaren azken 25 urteak gogoratu zituzten. Amaitzeko, langileek bazkaria egin zuten Gure Ametsan.

LABUR

Eskiatzera eta sagardotegira joateko deia

Eskoriatzako kirol elkarteek mendi sailak martxoaren 19rako, 20rako eta 21erako irteerak antolatu ditu. Horietatik bi eskiatzera izango dira. Martxoaren 19an, Gavarnie estazioan eskiatzeko dute; hurrengo egunean, Bareges-Super Bareges La Mongie estazioan. Antolatutako azken irteera martxoaren 21ean izango da, sagardotegira. Izenematea hilaren 17a baino lehen egin behar da Eskoriatzako Namaste belatzen denda.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

AMESTOY IPUIN KONTALARIA

Gaur, Koldo Amestoy ipuin kontalaria Unibertsitatean arituko da, 22:00etan. *Harriola Mariola* helduentzako ipuin ikuskizuna eskainiko du.

ERAKUSKETA

Udala Errepublikan eta Espainiako gerrari buruzko erakusketa bat antolatu nahian dabil. Horretarako, herritarren laguntza behar du. Gaiari buruzko materiala duten herritarrei erakusketarako uztea eskatu nahi die Udalak. Informazio gehiagorako kultura etxera jo edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu..

ERRETIRATUENTZAKO ORTUAK

Gogoratu, 55 urte baino gehigoko eskoriatzarrentzako ortuak egin nahi dituela Udalak. Bat eskuratu nahi dutenek hilaren 31a baino lehen Udaletxera joan eta izena eman beharko dute. Lanean ez ibiltzea eta herrian erroldatuta egotea funtsezko baldintza da.

Filosofia berbegai Eskoriatzan egin duten VI. Literatura Astean

Z.V.M.

Eskoriatzako HUHEZIKo Fakultatean VI. Literatura Astea egin dute oraingo astean. Jardunaldien ardatza Kant filosofo alemaniarra izan da, haren heriotzaren 200. urtemuga bete delako. Hainbat idazle eta ikasleren ahotsa entzun da edizio honetan.

Iragan egunean, martxoak 4, Eskoriatzako HUHEZIKo Fakultatean Literatura Astearen aurkezpena egin zuten. Matilde Sainz Hezkuntza lerroko zuzendaria, Maider Otamendi Eskoriatzako kultura zinegotzia, Fito Rodriguez EHUko irakasle eta Udako Euskal Unibertsitateko kidea eta Arantza Ozaeta fakultateko hizkuntza irakaslea eta antolatzailea egon ziren prentsurrekoan.

Goi mailako idazleak ekarri dituzte herrira (Juan Kruz Igerabide, Espido Freire, Bernardo Atxaga...), eta urtetik urtera jardunaldietako parte-hartzaile kopuruak gora egin du. Hasi zirenetik hona, urtero eginiko literatura asteak hobetzen saiatu direla aipatu dute antolatzaileek.



Antolatzaileek prentsurrekoan aurkeztu zuten aurtengo Literatura Astea.

Z.V.M.

idazleak hobeto ezagutzea; gure gizarteak gehiago irakurtzea; eta azkenik, euskararekiko atxikimendua areagotzea.

KANT, HIZLARIEN AHOTAN

Astehenean hasi eta gaur amaitu dira Eskoriatzako fakultatean Kanti buruzko jardunaldiak. Fito Rodriguezen hitzaldia izan zen aurtengo edizioeko lehena: *Kant, Modernitatearen Maisua*. Irakaslearentzat oso interesgarria da iraultza garaian (Frantziako Iraultza, esaterako) bizi izan zen filosofoaren pentsamendua orainaldia ulertzeko. Kantek bezala, zibilizazio iraultza bat datorren garaian, pentsatzeak zenbaterainoko garrantzia duen aldarrikatu zuen Fito Rodriguezek.

Hainbat idazle bisitatu dute aste honetan herriko fakultatea: Ignazio Aiestaran, Laura Mintegi, Joxe Azurmendi eta Jon Sarasuak. Kant mintzagai nagusi izan dute aste honetan aipatutako idazleak. Eta astea amaitzeko, fakultateko ikasleek *Filosofia bizitzaz, heriotzaz eta amodioaz* gaia hartu eta bai Kantek idatzitako, baita eurek egindako hainbat testu irakurri dituzte gaur goizean.

Immanuel Kant filosofo alemaniarra ardatz hartu eta filosofia landu dute aurtengo edizioan. Astehenean, hilaren 8an, hasi ziren hitzaldiak, eta gaur goizean amaitu dira. Literatura ardatz

duten jardunaldiek hainbat helburu dituzte, baina ekimenaren xede nagusiak hauek direla azpimarratu digute antolatzaileek: idazlearen eta gizartearen arteko loturak sendotzea; jendeak



'La Recordadora' antzezlanaren martxoaren 8an

Astehenean, martxoak 8, Emakumeen Eguna ospatu zen. Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek *La recordadora* ikuskizuna eskaini zuen kultura etxean, Txefo Rodriguezen laguntzarekin. Aretoa lepo bete zen, eta jendea oso gustura geratu zen bergararrak eskainitako emanaldia-rekin. Bestalde, egun berezi hartan, Inkernu tabernan txokolate-jana egin zuten. Jende ugari hurreratu zen tabernara, horietariko asko *La recordadora* ikusitakoak. /Z.V.M.

LABUR

Guraso Eskolaren bigarren saioa eguaztenean

Datorren eguaztenean, hilak 17, Eskoriatzako Udalak antolatutako Guraso Eskolaren bigarren saioa egingo dute kultura etxean. 18:00etatik 19:30era izango da hitzordua, eta oraingoan jorratuko duten gaia eskola porrotaren prebentzioa izango da. Deialdia Lehenengo Hezkuntzan seme-alabak dituzten gurasoei gomendatuta dago. 18 lagunek eman dute izena. Eguaztenean, Virginia Iglesias psikologoa arituko da Guraso Eskolan hizlari.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txalaparta taberna




Aranburuzabala 25
ESKORIATZA



DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

SABELA BETETA HOBETO ELKAR EZAGUTZEKO AUKERA IZAN ZUTEN

Akelarrerik ez, baina Gatzagako 'sorginek' primeran pasatu zuten

Z.V.M.

Hegan egiten ez duten *sorginak*, oraindik akelarrek egin ez dutenak, baina urte batzuk barru antolatzeke prest azaldu direnak. Halakoak dira Gatzagako emakumeak. Eta akelarrek beharrezko duten isuskiak zozketatu zituzten joan den zapatuan Gure Ametsa jatetxean egindako bazkarian.

Azkenean iritsi zen martxoaren 6a. Gatzagako emakumeak elkar-tu, eta Gure Ametsa jatetxera igo ziren Sorginak taldeak antolatutako bazkariak gozatzera.

Hogeita hamar lagun batu zituen emakumeen deialdiak. Hitzordura joateko ez zegoen adin finkorik. Horrela, gazte eta helduek, denek batera bazkaldu eta hobeto elkar ezagutzeko aukera izan zuten. Baina aurretik, urteroko erritua: talde argazkia.

'SORGINAK' GIRO BIKAIANEAN

Herriko 30 emakume batu ziren joan den zapatuan. Hara gerturatu zirenak adin askotariko emakumeak ziren. "Gazteenak 21 urte izango zituen eta helduenak, berriz, 84", adierazi digu Amaia Olabek. Lehen egitekoa taldeko argazkia ateratzea izan zen. Begizta bular aldean ipini, eta egun berezia ospatzeari ekin zioten, guztien erretratu bat aterata.

Gatzagako emakumeek Gure Ametsako jantoki gela bat izan zuten euren bakarririk. Gizonen presentziarik gabe, *sorginek* primeran pasatu zutela adierazi digu Olabek.

Mahaian eseri ziren, eta menu goxoaz gozatu zuten gatzagarrek: barazki menestra, antxumea, izozkia eta tarta. Horren ondoren, kafea eta kopa hartzeko aukera izan zuten gura izan zutenek.

Sabela ondo bete ondoren, dantzaldia izan zuten. Gardoki ibili zen jatetxeko jantokia doinu alaiez betetzen. "Dantza mordoa egin genuen han geunden guztiok", adierazi digu *sorgin* batek. Baina zein motatako *sorgina* da isuskirik ez duena?



Gure Ametsara gerturatutakoek primeran jan eta pasatu zuten zapatuan.

Zozketa egiteko garaia iritsi zen. Horrela, aurreko bazkarietan jaso zituztenak izan ezik, gainerako emakumeak sartu ziren zozketan. Hiru emakumeek eskuratu zuten hegan egiteko erratza. Amaia Olabe, Pili Orobengoa eta lehenengo aldiz bazkarira joan zen Elik jaso zuten sari hori. Adin askotariko hiru *sorgin*, hain zuzen ere. Urte batetik bestera, emakume gutxiago geratzen dira

isuskia lortzeko. Behin guztiak jasotzen dutenean, "akelarrea egin beharko dugu, eta herritik hegan irten", dio aurten saria eskuratu duen gatzagar batek. Akaso urte batzuk barru herrian ez da emakumerik geratuko!

HAINBAT ERABAKI BAZKARIAN

Baina bazkariak jai giroan bazkaldu eta dantza egiteaz gain, gauza gehiago egiteko aukera

Adin guztietako 'sorginak' suaren inguruan barik, janariz beteriko mahaiaren bueltan

"Isuski guztiak banatu eta gero, akelarrea egin eta herritik hegan irtengo gara"

Txango, hitzaldi eta ikastaro bana antolatzeke denbora izan zuten zapatuko bazkarian

eman zien Gatzagako emakumei. Urteroko bidaia nora egin erabaki zuten, adibidez. Aurtengoa, Leon bisitatzea joango direla erabaki zuten Gure Ametsan. Maiatzaren lehenengo asteburuan egingo dute emakumeek txango hori.

Horrez gainera, ikastaro bat antolatu gura dutela adierazi digute. Gorputza eta adimena sendotzeko baliagarri izango den zerbait egin gura dutela-eta, gimnasia edo yoga ikastaroa izango da antolatutakoa. Hala ere, horren aurretik, ikastaroaren nondik norakoak azaltzeko, hitzaldi bat prestatzeko asmotan dabilta. Lehenbailehen egiteko helburua dutela adierazi digu Amaia Olabek. Hortaz, hila-bete honen bukaeran egin gurako lukete berbaldia, eta apirila hasieran, berriz, ikastaroa.

LABUR

Txirrindulari eskolak, mendiko bizikleta kategoria

Azkenean, aurreko zapatuan aurkeztu zituzten Dorletako Ama txirrindulari eskolako taldeak. Lehenengo, 22 txirrindularik lore eskaintza egin zioten Ama Birjinari, eta horren ondoren, herriko udaltxera joan eta taldeen aurkezpena egin zuten. Hiru mailatan izango ditu taldeak txirrindulari eskolak: gazte, kadete eta infantiletan. Hala ere, aurten berritasun bat aurkeztu zuten: mendiko bizikleta kategoriako taldea. Horiek Euskadiko Openeko lasterketetan ibiliko dira. Otsailaren azken zapatuan egin behar zuten aurkezpena, baina eguraldiak lagundu ez eta martxoaren 6an jarri zuten hitzordua. Hala, azkenean, eguraldia alde zutela egin zuten aurkezpena.

Herriko hogeita zazpi lagun joan dira eskiatzera

Gatzagako guraso elkarte GURELen ekimenez, eski irtetara egingo dute gaurtik domekara bitartean. Urzainkira joango dira, Nafarroara. Aurretik eskiatzeko asmoa dute, betiere, eguraldia lagun izanda. Izaba eta Erronkari arteko herririka horretara 27 lagun joango dira. Gaur 17:00etan irtengo dira Gatzagatik, eta autoz egingo dute bidaia.

Hala ere, eskiatzeaz gain, parte-hartzaile txikienekin leretan ibiltzera joango dira. Izan ere, bederatzi urte baino gutxiago dituzten bederatzi bat gaztetxo joango dira Nafarroako txoko horretara.

GURELek elurretara joateko antolatzen duen lehenengo irteera da asteburu honetakoa. Udan urtero antolatzen dituzte irteerak, Getariara, adibidez. Baina orain arte ez dute neguan txangorik egin. Ziur ederto igaroko dutela aste bukaera, eta baietz batek baino gehiagok ipurdi-ko ederrak hartu!

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

**TOKI
ALAI
TABERNA**

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

**AZKOAGA
ESTANKOA**

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



MIRENTXU

TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

IRAGANA GOGORATUZ


Armagintza Debagoienean

Martitzenean, martxoaren 16an,
20:30ean eta 22:30ean



**Ikusiko
duzu!**

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa



ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



Alto Deba
margoak

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel. eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25




J.SANCHEZ
ITURGINTZA

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETAK
Tel. eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



San Migel 13, behea C
ARETXABALETAK
609 143 119



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tel.- Faxe: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tel.-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Otalora 14 ARETXABALETAK
Tel.: 943 79 16 10

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorativo eta Industrial

San Pedro 14, behea ESKORIATZA
Tel.-Faxe: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estruktura,
urbanizazio, kontrata
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasak
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETAK
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETAK - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasak
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C./POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

Araba ibilbidea, 17 eta 25
Tel.: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
• 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
• E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETAK
Telefona eta faxe:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETAK
ITURGINTZA

Durana 16 Tel.: 943 79 17 53
ARETXABALETAK

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASAK
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETAK

943 793 187